

Karkara

karkara.com

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko martxoaren 27a · 360. zenbakia. 26. urtea



Nolakoa izango da Orio 2030 urtean?

Herritarren parte-hartzearekin, Plan Orokor Berria osatzen ari da Udala, hamabost urte barru Orio nolakoa izango den zehazteko.

11

Nire Honetan
Jon Garate

20

Argazkiak
Korrika

25

Elkarrizketa
Hitzezekoak Bolibian

35

Kritika
Anje Duhalde

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Zaragueta Herri Eskola *orio*
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASIGURUAK
Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

irekiera Apirilak 9

AYA
JANARIAK
eusko gudarien 46

handitu egin da!

FRUTA DENDA ETA HARATEGIA HALAL

BERRITUTA .elikadura hobea
.izoztuak
.Arabic Produktuak
.bertako produktuak

PREZIOAK JAITSI DITUGU

prezio berezia eta **677 023 673**
entrega zerbitzua jabetxeetan

HAIZE & BERRI
talokaria-jaketakoa-kafetokoa

Plater konbinatuak,
biskotak,
hamburgazak,
razioak,
eguneko menuak...
eta etxera eramateko zerbitzua!

Bizkaia: Leizorua, 20-21 48910 22 23. Gasteiz: Galandak, 10-11

Gipuzkoako
Partaidetzako
Aurrekontuak

} **2 MILIOI euro**
UROLA KOSTA hobetzeko

Parte hartu zure herriko tailerreen:

- AIA. Apirilak 16, osteguna, 19:00etan, **KULTUR ETXEAN**
- ORIO. Apirilak 23, osteguna, 19:00etan, **SALATXO ARETOAN - ELIZA AZPIAN**

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

Gipuzkoa
BERRIA



360

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Idurre Telleria

**Ale honetako
kolaboratzaileak**Izaskun Arizeta
Marisa Arruabarrena
Zigor Esoain
Manu Etxeberria
Iker Gurrutxaga
Intza Unanue
Jabier Zabaleta**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakNora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Orioko herritarren arteko bertso txapelketako finaleko irudia.

HASI BERTSOTAN

ANTXON MANZISIDOR (DOINUA: ITURENGO AROTZA)

3. bertso txapelketako agurreko bi bertsoak

1Orain bi urte galdu
ta gaur irabazi,
akatsetik Txonasek
asko du ikasi.
Bertso mundu honetan
libre gara hezi,
petoa gainean dela
nahi nuke ikusi.**2**Amuleto bezala
daukat Kalakari,
mila esker Jontxuri
ta nire neskari;
eta nik nola ahaztu
nire laguneri,
gaur petoa nik jantzi
nahi nion aitari!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.eus

Aste Santua: matrakaren soinu lehorra

Elizaren tradizioan herriari otoitzera deitzeko kanpaiak erabiltzen dira.

Eliz barruan meza latinez eman eta apaiza herriari bizkarra emanda ari-zen zenean, herriari mezaren zati garrantzitsuak kanpaitxo batekin adierazten zitzaizkion.

Ostegun santuko aintzatic larunbat santuko aintzara arte kanpaiak isildu egiten dira. Elizaren tradizioa zen kanpaiak mutu daudenean herritarrei deitzeko Matrakaren soinu lehorra erabiltzea, bai kanpoan eta bai barruan. Ohitura hau galdu egin da gaur egun. Badira salbuespenak, ordea: hemen Orion ertsio diogu ostiral santuko gurutze-biderako deiri.

Aurten ere goizeko 3:00etan hasiko gara Pilliku plazatik eta 5:00etan bukatuko dugu. Lehen aldiz Anibarko Portuan ere saio bat egingo dugu.

Norbait laguntzeko prest badago, ongi-etorria izango da. Eta bateren bati enbarazu egiten badio Matrakaren soinuak, ulergarria da. Gauaren isiltasunean soinu lehor bat kolpetik sortzen baitu Matrakak. ■ **Matraka Taldea.**

68ko kinto bazkaria Sarasua erretegia

1968an jaiotakoen bazkaria egingo da apirilaren 18an, larunbatarekin, Sarasua erretegia. Izen-ematea Gure Txokon, Sayaleron, Muxutruk lore-dandan eta Goizekon egin daiteke, eta egunean bertan 13:00etan Gure Txoko tabernan geratuko gara. Animatu etortzera! ■ **68an jaiotakoak.**

Badatoz ate joka atez-atekoarekin

Orain zer egin behar dugun galdetzen digu Bilduk igandeko idatzian, ez al lortu bere buruari galdetu behar zer ez duten egin orain arte?

2014ko urrian EAJren idatzia azaldu zen hedabideetan, Orioko Udalak antolatutako hondakin mahaia ez zela el-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

kartu azken urte betean. Honekin oso kezkatuta azaltzen ginen ez biltzearen kontu honen guztiaren atzean ez ote zegoen estrategiaren bat eta hara non, igandean konfirmatu ziren gure kezka guztiak.

Argi dago, Bildurentzat zenbat eta okerrago hobe! leloa dela hondakin inguruan duen irizpide bakarra. Birziklapen tasa al den – emaitzarik – txarrenetara iritsi hauteskundeetara eta, modu honetara, beren burua guztiz legitimatua ikusi dute atez atekoa inposatu ahal izateko. Baldin eta udal gobernuaren jabe egiten diren, eta jakin badakigu, hauteskundeak ez irabaztea ez dela oztopo Bildurentzat gobernura iristeko.

Urte eta erdi ezer egin gabe eta orain presaka? Bilduren kudeaketa ezak, berriro ere, ardua Orioko herritarren bizkar gainean jartzen du eta, horretaz gain, Bilduk modu honetara aitzakia bikaina du atez atekoa inposatzeko gure herrian. Garbi dago zertan ari diren. Hau guztia honen iragarpena da, *Aviso a navegantes*: Udala Bilduren eskuetan uzten badugu, hemen da atez-atekoa. ■ **Orioko EAJ-PNV.**

%65era ez gara iritsi: eta orain zer?

Pasa dira urte eta erdi, 2013ko azarotik,

Orioko hondakin mahaia osatzen duten alderdiek 2015aren hasierarako %65a birziklatzea adostu zutenetik. Egun hauetan udaletxean zintzilikatuta dagoen panelak, %42a markatzen du. 2015eko martxo da.

2013 bukaeran %36a birziklatzen genuen Oriotarrok. Abiapuntua zen. Izan ditugu %42rainoko birziklatze zifrak hilabeteren batean, baina, berriro ere hasierako puntuan gaude. Hau dena, udalak 5. edukiontzia aldeko hautua egin ondoren. Bilketa sistemen eztabaidan sartu nahi ez zuten udal taldeek, herrian zehar ezarritako 5. edukiontzi kopurua bikoiztu zuten udal taldeek, ez dute helburua betetzea lortu. Usteltzera botatzen dugu hondakin organikoak!

Orioko EH Bilduk beti defendatu du Zero Zabor bidea eta Zero Zabor filosofia etxe guztietan barneratu dadin nahiko luke. Ahalegin kolektiboak dakar honek, ez dezagun ahaztu! Eta ahalegin horren ardatz nagusia kontsumo arduratsua da. Honen sustapenak herritar bakoitzetik hasi eta denda, taberna eta enpresetara iristeraino, hondakin sorkuntza murriztea ekarriko du. Bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat egiten du. Bestalde, txalotu nahi ditu bilketa sistema desberdinen bidez birziklapen portzentaje handiak lortu dituzten herri eta herritarrek Gipuzkoan. Baina, zoritxarrez, urrats handiak ematen ari diren herri hauen aurrean, Orioko emaitzak eskasak direla esan nahi du. Emaitza hauek hobetu daitezkeela ziur gaude, eta beharrezkoak eta lehenbailehen gauzatu beharrezkoak direla uste dugu; sortzaile handiekin bilketa sistema kontrolatu eta beharrezko gauzatzea eta herritar guztiek hondakin organiko birziklatu dezaten neurriak hartzea. Hau arautzeko hondakin herri ordenantza adostu eta martxan jartzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Presazkoa dela esan dezakegu.

Era berean ingurumena eta osasuna kaltetzera eramango gaituen neurririk gabeko hondakin sorkuntzak ardurazko kontsumoa bultzatzera eramán

behar gaitu. Sortzen dugun hondakin kopurua gutxitu behar dugu. Gizarte aurreratua garelako diogunean, gizarte heldua garelako, arduraz jokatzeko duen gizartearen behar dugu. Eta helduak izan hondakinak tratatzeko azpiegiturak diseinatzeko orduan, jasagarriak eta ondo dimentsionatuak izan daitezkeen, hondakinak baliabide izango dituztenak, inoiz ez kutsatzailak. Hondakinaren errausketarako diseinatutako azpiegituren kontra gaude. Diru publikoaren xahuketa ez, ingurumenari eta gure osasunari kalte egingo diola badakigulako. Gaur egun erokeria da errauskailuak behar ditugula pentsatzea!

Erantzukizunez jokatzeko tokatzen zaigu herritar eta udalean ordezkariak dugun taldeoi. Axolagabekeriak alde batera utzita. ■ **Orioko EH Bildu**

2015 aurrekontu kezkarriak

Ez gara sartuko erabili diren formetan eta eman diren epeen eztabaidan. Garrantzia aurrekontuen edukia dute eta hau da erantzuteko daukaguna jarraian agertzen diren EAJren esaldiei:

Inbertsioetan %40ko beherakada izatea. Administrazioan erabiltzen di-

ren irizpideen aldaketatik dator, besteak beste, beherakada. Denok dakigu, eta adibideak milaka daude, diru-sarrerara ziurrik gabe aurreikusten zirela gastuak eta urte bukaeran ez zirela gauzatzen.

Enplegua eta promozio ekonomikoaren partidan dirurik ez aurreikustea. Aurrekontuak onartu ziren udalbatzarrean zuzenean erantzun zen: enplegua eta promozio ekonomiko oso lan txukuna egiten duen Urola Kosta Udal Elkartetik bideratzen da.

Kultura elkarteak %10eko beherakada jasatea. Hau ere udalbatzarrean erantzun zen. Kultura batzordeburuak azaldu zuenez *elkarrekin beren beharren arabera partida jasoko dute eta ia-zkoarekin alderatuz ez da beherakadarik egon.*

Kiroldegiko kanpoko enpresari 2015ean diru gehiago ematea. Lotsagarria hitza erabiltzen da EAJk prentsan zabalduak albistean eta benetan lotsa ematekoa da erasotzeko zabalitzen duen informazioa. Adibidez, ez da egia Karela kiroldegia kudeatzen egon den aurreko enpresa Oriokoa zenik.

Diru gehiago ematen zaio enpresari baina langile gehiago kontratatu du, lehen udalak ordaintzen zituen gastuak orain enpresaren gain doaz, eta abar

luze bat. Ematen duen zerbitzuari eta instalakuntzen hobetzeari esker bazkide gehiago dago, hau da, kalitatea nabarmen gehitu da.

Zaborren kudeaketarako 90.000 gehiago ordaintzea. Udalbatzarrean oso garbi azaldu zuen alkateak zergatia: Urtetako zabortearen itxieraren ondorio da. Gainera, udalbatzarrean azaldu zenez, 2006tik jakinda itxi behar zela eta horrek kostua suposatuko zuela ez zen diru-partida berezirik sortu.

Euskaltegi zerbitzuak mugikortasun murriztua. Euskaltegia beharrezkoa ikusi dute udal talde politiko guztiek, ez dago dirurik beste lokal bat egokitzeko eta Salatxo aretoa errentagarria egin behar da.

Beraz, toki egokia da eta mugikortasun arazoak konponduko dira. 2011-2015 legealdian udal gobernua egon den Orain plataformak irisgarritasun alorrean bultzatu dituen proiektuak hor daude – Eusko Gudari eta Arrantzale kaleetako pasabideak, Kultur Etxeko sarrera, etab. – eta horietan gas-tatutako diruak gustura erabiliko zituen beste proiektu batzuetan EAJ alkatetzan egon den legealdietan konpondu bazituen.

■ **Orain plataforma.**

■ ZORITXARRAK!

Kakak jasotzen ez dituztenei

Txakurra gizakiaren lagun onena dela esaten da, eta egia da: txakurra sarri lagun hobe izaten da gizakiarentzat gizakia bera baino.

Txakurrarekin ibiltzen dira paseoan oriotar asko: hondartza inguruan, erriorearen alboan... jolastoki eta parke askotara eramaten dituzte txakurrak. Animaliak kaka egiten dute gunehorietan eta horien jabe askok ez dituzte txakur kakak jasotzen. Ondorioz, herritarrek ezin dute gunehorietaz disfrutatu, guztia kakaztuta baitago. Jaso txakur kakak guztiok goza dezagun herriko parke eta inguruez.

■ JAIOTAKOAK

- Julen Manzanos Beldarrain, Orion, martxoaren 19an.
- Amets Bidasoro Gaztelumendi, Orion, martxoaren 7an.
- Aiora Navarro Garcia, Orion, martxoaren 2an.

■ EZKONDUTAKOAK

- Jose Mari Elgorriaga Fernandez eta Naiara Agirre Pozo, Orion, martxoaren 21ean.
- Pyterson De Jesus Morais eta Pauline Da Silva Santos, Orion, otsailaren 28an.

■ HILDAKOAK

- Matilde Uzquidun Tolosa, Orion, martxoaren 4an, 76 urte.,

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Andoni Sarasua Beñat Solaberrieta alkateari testigua ematen . KARKARA



Plan Orokorra lantzeko bost bilera egin dira. KARKARA



2006ko Nazioarteko Estropada. JOXEMARI OLASAGASTI

Tipi-tapa 2030 urteruntz

“Korrika, euskaraz bizitzea maldan gorako lasterketa izan ez dadin.”

Mendiak daude Orioko itsasadarrean. Aiako kaskoa ere mendiek inguratzen dute. Eta, mendietan lasterka ibili dira bai Orioko, bai Aiako mendizaleak. Maldan gora eta behera.

Euskaraz bizitzea maldan gorako etengabeko lasterketa da euskaldun askorentzat. Hortaz, euskahaldunak korrika egin dugu euskararen alde. Urepeletik Bilbora, Orion nahiz Agurainen. Korrika, euskaraz bizitzea maldan gorako lasterketa izan ez dadin.

Petoa jantzi eta lekukoa esku batetik bestera pasa dugu, eskuz esku etorkizun hurbilean Euskal Herri euskahalduna eta euskara-duna izan dezagun. Tipi-tapa, tipi-tapa, korrika. Batzuk kilometro bat eta musu gorri-gorriekin; beste batzuk Xuaiko aldapa igo eta Zarautzera jaitsi arren, korrika Zarautz zeharkatzeko indarrarekin. Dena den, irabazlerik ez dagoen lasterketa da Korrika, garaile bakarria euskara baita.

Igandean botatako izerdiarekin Korrika gauean edandakoa erre zuten askok. Aitzakia bazuten larunbatean parranda egiteko eta, baita, parranda giroan bertsoak kantatzeko ere. Herriko bertsolariek sagardotegian ahotsak berotuta eman zioten hasiera IV. Bertso Txapelketari. Ahotsa ez ezik, irudimena martxan jarri behar izan zuten.

Irudimena izan eta 2030. urtera bidaiatu dute oriotarrek hilabete honetan zehar. Hemendik 15 urtera nolako Orio nahi duten adosteko bilera-irekiak egin baitira, bost guztira. Urrun egon arren 2030 urtea, askok gertu sentitu dute gaia eta bileretara bertaratu dira. Gertu dago Aste Santua, hortaz, iristear dira Nazioarteko Estropada eta Euskal Herriko Txirringululari Itzulia.

Gogotsu zaudete Euskal Herriko txirrindulari itzulia Aian izango delako?



“Oso kirol gogorra da txirrindularitza”

Txirrindularitza ez zait gainerako kirolak bezalakoa iruditzen. Oso kirol gogorra iruditzen zait, futbolean baina askoz ere gehiago sufritzen dutela uste dut. Eta, niri, pertsonalki, asko gustatzen zait.

Ikusteko oso polita iruditzen zait. Beste urtetan Aiatik igaro diren probak ikusi izan ditut, eta aurten ere ikusiko dut, noski. Etxeko balkoitik ikusiko dut eta grabatu ere egingo dut.

Herriari bultzada eta arrakasta ematen dio horrelako ekintza batek, jende asko mugitzen baitu. Herritarrak ez ezik, kanpotik ere jende asko etortzen baita. Txirrindularitza zale askoren bilgunea da.

Gerardo Azpiroz

“Herri txiki baterako gauza handia da”

Polita da, herriari bizia ematen baitio eta jende asko mugitzen baitu. Azkena izan zenean jende asko bildu zen herrian, izan ere, erlojupekoa izanda eta duen aldapa edukita, erakargarria da.

Tabernarienzat eta negozioa dute nentzat, eta, noski, herriarentzat, ona da oso. Niri, esaterako, lana egitea egokitzen zait. Azkenekoz ere lana egin behar izan nuen eta ezin izan nuen itzulia ikusi. Beste era batera bizi nuen itzulia, izugarrizko jendetza ibili baitzen eta lan asko izan baikenuen.

Dena den, herritar askok egiten dute lan antolakuntzan, boluntario lanetan aritzen dira.

Ana Jesus Lertxundi

“Animatu egiten da herria, bizitu.”

Beste urteetan ere ikusi izan dut, lagun bati ardiekin laguntzen izaten naiz, bere larrean, eta handik ikusi izan dut. Txirrindulariak belardi ondotik igarotzen dira, eta han izaten gara, baztarrean, berei begira.

Aurten ere horrela egingo dudala pentsatzen dut. Telebistarik ez dut ikusten, ez dut ohiturarik; hortaz, bertatik bertara ikusten dut itzulia. Oso polita izaten da, oso ondo pasatzen dut.

Eta, horrez gain, asko gustatzen zait sortzen den ambientea. Giro paregabea izaten da, itzela. Herria animatu egiten da, bizitu. Jende asko biltzen da, bertakoak eta kanpokoak, eta giro ederra izaten da.

Agustin Arruti

Ille apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ARISTERRAZU
jatetxea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.
Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

1990eko hamarkadan, Orio berriro puntan

Urte batzuetan noraezean ibili eta gero, eta Jose Luis Korta berriro herrian izanda, **1990eko hamarkadak urrezko urteak** ekarri zituen. Kontxako lau bandera eta ehunaka garaipen dira horren lekuko.

TESTUA: MANU ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: RAMIRO ETA SANCHEZ

Historikoki 1980ko hamarkada Oriorentzat eskasena izan zen emaitzak eta estatistikak ikusita. Salbuespenez, goraiatzekoa da oraindik –1979an Munduko txapelkunak izanda gero– Elizalde, Redondok eta Puer-tasek pisu arinen kategorian, Mundialetako podiumetan kolore horia harro erakutsi izana.

Traineruari dagokionez, beste bi oriotar entrenatzaile lanetan aritu ziren: Korta Kaikun ibili zen eta Olasgasti, Luxia, Zumaian. Bien artean, garaipen handiak lortu zituzten hamarkada hartan bost Kontxa irabazi baitzituzten, esaterako.

1982rako Juanito Altxerri historikoak goi mailako kuadrilla biltzea lortu bazuen ere, Kaiku eta Zumaia oso aurkari indartsuak ziren. Izan ere, 1983ko Kontxako kanporaketa polemikoan bi horien boikota izan zen modu bakarra urte horretako Kontxako bandera etxeratzeko.

1990 Kontxarako sailkatu ere ez

Hamarkadaren erdian Patxi Sarasua zuzendari tekniko jarrita, arraunketa olinpikoari lehentasuna ematea izan zen helburua, gero traineruko emaitzak hobetzeko. Ez zen ondo atera planifikazio hura, eta, lau urteren buruan, Oriok hondoajo zuen Kontxako estropadetarako sailkatu gabe geratzen. Ondorioz, Iñaki Sarasua presidentea zeneko zuzendari-tza taldeak Korta ekartzea erabaki zuen, egoera tamalgarri hari buelta emateko. Kortak taldean zeuden gazteei beterano batzuk gehituta, 1991ko Kontxa irabazteko zorian jarri zuen Orio. Lehengo igandean denborarik onena markatu eta gero, San Pedroko Libia gailendu zitzaizen azken sailkapenean.

1992 Hamar urte ondoren, Kontxa Oriora

Nabarmena zen Orio traineruen lehen mailara itzuli zela. Kortaren bueltarekin, eta babesle indartsuei esker, taldean gaur arte irauten duen oinarri sendoak jarri ahal izan ziren.



Hamar urte itxaron ondoren Kontxako bandera berri zuten.

1992an Orioren berpiztea baieztatu zen Donostiako Badian. Pasaian izandako zatiketarik sortutako Donibaneko Arraunlariak taldeko traineruarekin borroka bizian, Kortaren mutilak Kontxan nagusitu ziren, banderarik irabazi gabe hamar urte luze eta triste igaro ondoren.

Ondorengo urteetan, San Pedro eta Donibaneko arraunlariak taldeekin buruz buru gogorrak izan zituzten gure mutilek. Ordurako, ordea, hazia jarrita zegoen, eta belaunaldi gaztearen eskutik, hamarkadaren bigarren erdian beste hiru Kontxa irabazi ziren, eta zortzikoan ere jaun eta jabe izan ziren oriotarrak 1994tik, urtero, Estatu mailan.

1990 Ibon Urbieta mundialetan bikain

Urte haietan, ordea, ikusi zen 80ko hamarkadan elkartean egindako lanaren emaitza. Egindako lanak fruituak eman zituen. Ibon Urbieta lanean jarrita zegoen Bartzelonako Joko Olinpikoei begira; eta, 1990 Munduko Txapelketetan, agian, elkartearen historian lortu den emaitzarik onena lortu zuen.

Pisu absolutuen mailan, lemazain bikoan zilarrezko domina irabazi zuten. Bikote bakar batek gainditu zien, Italiako Abbagnale anaian bikote ospetsuak, alegia.

50 URTE OLATU GAINEAN: 1980-1995



Amerikako Estatu Batuetako arraunlariak ere izan ziren urte haietan Oriaren uretan.

OXFORD CAMBRIDGE - ORIOMITIKO HAI EK

1965ean Club de Remo Olímpico de Orio elkarte berria sortu eta hiru urtera, 1968an, jokatu ziren lehenengoz Nazioarteko Estropadak. Ikusmin handiz, Oxfordeko zortzikoa etorri zen Oriora eta, garai hartarako lorpen izugarria, Espainiako telebistak emititu zuen.

1969 Aurreneko Oxford-Cambridge - Orio

Aurreneko aldiz Oxford-Cambridge Orio estropada jokatu zen, gerora lau alditan jokatu zena eta Cambridgeko zortzikoa nagusitu zen, Oriori lau segundo pasata kenduta.

1970 Orio nagusi

Uda hartan traineruak garaipen historikoak lortu zituenaren antzera, Orioko zortzikoak Oxford eta Cambridgeko talde mitikoak gainditu zien Oriaren itsasadarrean jarritako 2000 metroko estropada eremuan.

1971 Alemaniarrak gailendu ziren

Oxford Cambridgeko zortziko mistoa bertaratu zitzaigun 1971eko ekitaldira. Oriotarrak ez ezik -bigarrenak, 3 segundotara-, Alemaniatik etorritako Munich Frankfurt zortziko mistoak mendean hartu zuen zortzikote britainiarra.

1973 Estatu Batuarrek Orion

Urte hartan Orioko Nazioarteko Estropadek ozeanoz bestaldeko ordezkaritza izan zuen: Estatu Batuetako Floridako Columbus Day taldea. Amerikar zortzikoak buruz buruko ikusgarria izan zuen Belgikako selekzioko taldearekin. Biak ere segundo berean helmugaratu ziren, ordena horretan, eta oriotarrak lau segundotara utzi zituzten.

1974 Cambridge, Orio eta Oxforden aurretik

Polonia, Italia eta Alemaniako taldeak ere Orion izan ziren urte hartan. Zortzikoaren estropadan, berriro jokatu zen oriotarren eta Britainia Handiko bi zortziko mitikoen estropada. Cambridgekoa nagusitu zen erraztasunez, eta Orio eta Oxford, ordena horretan, ia denbora berean, hamarreko baten barruan iritsi ziren helmugara.

1976 Oxford nagusi, eta Orio bigarren

Oxford eta Orioko zortzikoaren borroka izugarria izan zen protagonista 1976ko ekitaldi hartan. Segundo erdiz lortu zuten gailentzea urdin iluneko britainiarrak. Cambridgekoak, berriz, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Kantuz sortu naiz eta... kantuz nahi bizi



Marisa Arruabarrena

Astean bitan izaten dut zita. Bederatziak hamar gutxitan arrandegiko horretan geratzen gara, eta elkarri txanda eman ezinik iristen gara Kosta Tailerrera, alegia, Salatxoko lokalera. Honi ere jarri beharko litzaioke beste izenen bat... Izenak izana baitu... Baina hori beste baterako utziko dut.

Duela 5 urte eman genion hasiera gure ibilbide berri honi eta, gaurdaino, ez naiz sekula damutu hartutako erabaki hartaz. Batzuetan alaiago, besteetan nekatuta, urduriago, baina beti hasierako egun hartako ilusio eta zirrararen berberarekin jarraitzen dut. Salatxokide izateak artezkar berri bat ekarri dio nire bizitzari.

Idazteak, betidanik, barne-grinak askatzen lagundu izan dit. Ene sekretu handienei irteera eman diet ordenagailuko teklatuari klik eta klik eginez.

“Duela 5 urte eman genion hasiera ibilbide honi. Ez naiz sekula damutu hartutako erabaki hartaz.”

Nire bakardadean...

Baina Salatxokoekin, *kantuz igortzen ditut nik penak ihesi*. Orain talde bateko partaidea naiz. Gure abesbatza familia handia bihurtu da. Egiten ditugun kontzertu eta ekitaldi guztiekin herria bilduz abesten duen taldea da gurea. Hemendik urte batzuetara nire bilobei esango diet Salatxon abestuz *kantuz biltzen nituen aldeko lagunak*. Zer gehiago eska dakiok?

KARKARAK eskaini didan atal honetatik herri honi erregutu nahi nioke *kantuz sortu naizenez eta, kantuz bizi, bada, kantuz egin dezatela nitaz oroitzian...*



Intza Unanue

Antuz hazi eta bizi naiz. Niretzat ez da bi nota ahoskatzea soilik, ezta ere ongi edo gaizki egitea. Hori baino askoz gehiago da, zerbait berezia da. Musika da askotan negarra eragiten didana, baina baita malkoak lehortzen dizkidana ere.

Ez naiz bereziki hitzez espresatzen den pertsona horietakoa. Horregatik nire honetan kantatzeak barruan dudana guztia kanporatzen laguntzen dit. Errealitateaz eta oroitzapen txarrez ahaztu, eta nire munduan murgiltzen naiz. Musikari esker, aske sentitzen naiz, musikari esker naizena naiz.

Jendaurrean kantatzean, nire sentimenduak espresatzen ditut bai, baina horrez gain entzuleengan zirrararen eragiten saiatzen naiz. Entzuten nautenean beraien barnean zerbait berezia sortzen. Ez dago ezer ederra-

“Musikari esker asko sentitzen naiz. Jendaurrean kantatzean, nire sentimenduak espresatzen ditut.”

gorik nire ahotsarekin hori lortzea baino.

Historian zehar hitzak ondo lotuz testu sakonak sortu izan dira eta betirako gorde daitezke, baina jendearen bizitzan inarrotea lortzen duen abestia harago doa; oroitzapen ederrarekin bat eginez, norke ez du momentu berezi batekin lortzen duen abesti bat?

Azken finean eskatzen dudana ez da musikatik bizitzea. Nire helburua ez da musika lanbide bihurtzea baizik eta nire ahotsak zerbait bitxia helarazteko gaitasuna duela jakitea. Beraz, kantuz sortu naiz eta, kantuz nahi dut bizi.

Goazen zuhaitzak landatzera!



Izaskun Arizeta

Txetik atera eta edozein bide bazterretan luizia! Hasi Txurrukatik, errepide nagusia igaro eta Andazarreteraino! Aspaldi gertatutako luizia areagotua, errepide nagusian semaforoa aurki genezake luiziagatik eta Andazarrateko errepidea errusiar mendi bat izango balitz bezala topatu dugu! Normalean ez dira oso espektakularrak eta katastrofikoak izaten, Azagrakoez ziurrenik ez dute holakorik esango! Azagran, 1856an 11 hildako, 1874an 92 hildako eta 1903an eta 1946an bina hildako. Hori bai, milioitako gastu ekonomikoa ekartzen dute luiziek. Baina zergatik gertatzen dira? Mendi hegal batean luizia gertatuko da bertako materialen oreka apurtzen bada eta grabitatearen eraginez material horiek mugitzen badira. Deforestazioa izan daiteke adierazitakoaren adibide garbia. Zergatik, baina, beharrezkoak diren zuhaitz hauek moztu? Baratzean itzala ematen dutelako? Udazkenean kainuak hostoz betetzen dituztelako? Orbela irristakorra bihurtzen delako euriarekin? Sustraiak galtzada-harriak altxatzen dituztelako? Egurrezko mahaia egiteko? Papera lortzeko?... Auskalo!

Batek daki, baina kontuak kontu zuhaitzak mozten ditugu.

Zuhaitzik gabe lurzorua babesik gabe geratzen da. Horrela, euria egiten duenean, ura lurzorua dituen poroetan sartzen da, *urez beteta* dagoenean mendi hegal horrek gehiago pisatuko du, ezegonkorra bilakatuko da eta azkenean erori egingo da. Noski, mendi hegalaren egonkortasunean beste hainbat faktorek ere badute zerikusia: terrenoaren ezaugarriak, harriak aske dauden ala ez, hausturak egotea, arroken gogortasunak, gizakiak... Eta zer egin luiziak ez gertatzeko? Baso berritze politikak? Basoko suteen aurka borrokatzea? Plan urbanistikoez ezegonkorak diren mendi hegalak kontutan hartzea? Drainatze lan egokiak? Euskarri lanak? ... Auskalo!



Jon Garate

Euskaldunak ere typical spanish

E adira bi hilabete Oriotik irten eta Herbeheretara iritsi nintzela. Erasmusen *where are you from?* –nongoa naizengaldetzen didate etengabe. Orduan, euskalduna naizela erantzuten diet. Baina gehienek ez dakite non dagoen gure herria, beraz espainiar iparraldekoa naizela esan behar izaten dut. Behin espainiarra naizela esanda, berdin du euskalduna, kataluniarra edo andaluziarra izan. Mundu guztiarentzat *typical spanish* naiz. Siesta, sangría, fiesta, toros, paella eta Macarena bakarrik ezagutzen dituzte.

Mila aldiz azaldu behar izan dut nik ez ditudala sevillanak dantzatzen, ez ditudala zezenketak gustuko, eta ez dakidala sangria zer den. Baina jendearentzat ulergaitza da hori. Denentzat *Spanish* izaten jarraituko dut. Esaterako, aurrekoan, unibertsitaterako lan bat gainontzeko ikaskideek baino azkarrago bukatu eta irakasleak harrituta galdetu zidan ea espainiarra nintzen. Uste zuela han alferrak zirela. Nik euskalduna nintzela erantzun nion.

Gaztelaniaz beharrean euskaraz hitz egiten dudala ulertzea ere kostatu egiten zaio jendeari. Baita espainiarrei ere. Egin kontu, Malagako batek esan zidan uste zuela euskara jende zaharrek bakarrik hitz egiten zuela eta ez zela ia erabili ere egiten. Denbora honetan jabetu naiz aurreiritzi asko ditugula besteekiko. Nik uste, beste kulturak eta jendea hobeto ezagutu beharko genituzkeela arinkerian ez erortzeko.

“Txirrindulariak ibilbidean dauden bitartean herria itxita egongo da”

Laurentxi Iturain eta Joxe Mari Gonzalez de Txabarri

EHko Txirrindulari Itzuliko Aiako etapen antolatzaileak

Inoiz bizi ez duena biziko du Aiak apirilaren 10ean eta 11n: Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia herrian amaituko da. Lan handia eskatzen du antolakuntzak, eta horretan ari dira buru-belarri Iturain eta Gonzalez de Txabarri.

M. GARCIA

Gainezka egingo du Aiak apirilaren 10ean eta 11n: autobusak, kamioiak, bizikletak, txirrindulariak eta jende mordo eta etorriko dira Euskal Herriko Itzuliaren amaieraren harira. Ostiralean Eibarren hasitako probak Aia izango du helmuga; eta igandeko proba, erlojupekoa, Aian hasi eta amaituko da.

Lan mordo eskatzen du hori guztia antolatzeak, eta 2014ko irailtik ari dira lanean Joxe Mari Gonzalez de Txabarri –1963– eta Laurentxi Iturain –1973– antolakuntza taldean.

Euskal Herriko Itzulia Aiara dator, nola ari zarete antolatzeko?

Talde batzuk osatu ditugu, bakoitza bere lanarekin: azpiegitura, bidegurutzak eta komunikazioa. Azpiegituran indar handia jarri behar da: 20 bat autobus eta 60 auto inguru etorriko dira Aiara, eta horiei guztiei tokia egitea ez da erraza.

Komunikazio taldea informazioa emateaz arduratzen da. Webgunean jartzen da guztia, eta bilerak antolatzen dira herritarrei informazioa emateko.

Noiztik ari zarete antolaketan?

Duela bi edo hiru urte eskaera egin genuen Euskal Herriko Itzulia Aiara etortzeko. Oriotarrak Kirol Antolakuntzak taldearen laguntzarekin egin genuen eskaria. Behin baiezkoa jasota, irailean, festak pasa ondoren, lanean jarri ginen buru-belarri.

Dozena erdi bat laguneko taldea elkartu ginen eta bilera mordo egin ditugu Itzuliaren antolatzaileekin. Gai nagusiak berekin zehaztuta, boluntarioak bilatzen eta taldeak sortzen jarri ginen.

Zenbat boluntario behar dituzue?

Itzulia antolatzeak lan handia dakar: 100 pertsona inguru behar ditugu dena ongi joateko. Ibilbiderako 70 behar dira eta beste 30 kaskoan egoteko. Agerreko aldapan –Aiako pareta deitzen zaiona–, adibidez, boluntario mordo behar da. Malda handiko bidea da, bi aldiz pasatzen dira hortik txirrindulariak eta jendeak gertutik ikusi nahi izaten ditu.

Horrelako ekitaldi handi batek zer ekartzen du Aia bezalako herri txiki batera?

Erronka handi bat. Itzuliaren amaiera aurrez izan dugu Aian, baina ez bi egunetan. Azken etapak –Aian hasi eta Aian amaitzen denak– azpiegitura guztia herrian bertan izatea eskatzen du, eta bere lanak ematen ditu.

Bestalde, ikusgarria ere izango da arrazoi beragatik. Politika izango da herrian sortuko den giroa: talde guztiak hemen egongo dira, txirrindulariak alde batetik bestera, beroketak egiten, bizikleta guztiak...

Egun horietan bertan nola egongo da herria?

Herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien jartzen saiatuko gara, baina egunean bertan herria itxiko da ordu batzuetan.



Gonzalez de Txabarri eta Iturain, itzuliko azken bi etapen helmugan. KARKARA

“Itzulia antolatzeak lan handia dakar, 100 boluntario inguru behar ditugu dena ongi joateko: 70 ibilbidean eta beste 30 herrian bertan.”



Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren kanal berezia.

Bilerak egin ditugu informazioa emateko, guztiek aurrez jakin dezaten.

Apirilaren 10ean ezer gutxi eragingo du, bazkalostera arte ez baita itzulia Aiara iritsiko. Gainera, ibilbidean datozenez, lasterketa pasatzen denean bakarrik itxiko da errepidea. Larunbatean, ordea, apirilaren 11n, herria itxita egongo da txirrindulariak ibilbidean dauden denbora guztian, gutxi gora-behera 13:00etatik 18:00ak arte.

Jende eta baliabide asko ekarriko dituzte antolakuntzakoek. Nola antolatuko duzue herria?

18 edo 20 talde inguru datoz, ETBren kamioiak... guztia kaskoan sartu behar dugu. Autobusak Armendigainen jarriko ditugu, taldeak eskola ondoko aparkalekuan, epaileak futbol zelaian eta prentsa botika atzeko aparkalekuan. Kamioiak Andatzan utziko ditugu, ez baita guztientzat tokirik izango kaskoan.

Eta kanpotik etorri nahi duenak?

Kanpotik autoz etorri nahi dutenek ezin izango dute herri-raino igo, edo ez dute kotxea uzteko tokirik izango. Horregatik, Andatzan aparkaleku handi bat jarriko dugu eta autobusak egongo dira bost minuturo Aiara igotzeko. Kaos bat izan daiteke bestela.

Herritarrei ere, garaje itxiak badituzte, egun horretan autoak bertara sartzeko eskatuko diegu, tokia egiteko.



Hamabost urtean biribildu beharreko ertz askoko plana

Etorkizunean, 2030 urtean, nolako Orio nahi duzu? bilera-irekiak egin dira. Izan ere, **ezinbestekoa da herritarren parte hartzea** herriak nolakoa izan behar duen adosterako garaian.



TESTUA: OLATZARTOLA

ARGAZKIAK: KARKARA ETA ORIOKO UDALA

Testu inguru sozial eta ekonomikoa aldatuz doa, etengabe. Aldaketa horien erantzule da Orioko Plan Orokor Berria, etorkizunean nolako Orio nahi dugun adosteko balio duena. Herria urbanistikoki nola antolatuko den erabakiko da.

Jadanik hasi da erabakitzeko garaia. Otsailaren 3an, hain zuzen, jendaurrean aurrerakin dokumentua jarri zenean. Gerora bost bilera-ireki egin dira, herritarrak informatzeko eta iritzia nahiz proposamenak partekatzeko; dena den, aurrerapen dokumentuari ekarpenak egiteko epea hilabete barru amaituko da, maiatzaren 4an.


Aldi bat itxiko da orduan, baina Orioko Plan Orokor Berria amaitutzat emateko denbora igaro beharko da, hiru urte gutxi gorabehera. Orain hastapenetan dago proiektua, lehen urratsak besterik ez dira eman.

Gutziz irekia den plan orokorra

Postontzietan Orio 2030aren inguruko aldizkaritxo utzi zuten, etxe guztietara banatu. Bost gune agertzen dira eta gune bakoitzeko hiru proposamen. Herritarrak kokatzeko sortu zen liburuxka; paper zuriaren gainean ekarpenak ez egitearren, oinarri bat izan zezaten proposamenak errazago egiteko. Laguntzeko, alegia.

Bete behar diren arauak oso zabalak eta zehatzak dira. Zorroztasunez bete behar da legeak dioena, eta herritarrek kontzeptu horietara hurbilpen bat izan dezaten, eremuz-eremuko alternatibak garatu ditu Udalak. Hautsi, eraldatu edo aurrera eraman daitezkeenak, hau da, guztiz irekiak.

Gainera, plan orokorrak urbanistikoki Orioko herri guztia hartzen du. Hasteko, lehen iritzia jasotzeko, Udalarentzat esanguratsuenak zirenak hautatu ziren, baina eztabaida bost puntu horiek baina zabalagoa da.



Gutxienez 240 etxebizitza; gehienez, 420

Udalaz gaindiko erakundeek idazten dute plan orokorraren nondik norakoa, berek zehazten dute Udalak zein mugen artean hartu ditzakeen erabakiak.

Muga horietariko bat etxebizitza kopuruarena da. Plan orokor berrian, derrigor, 240 eta 420 etxebizitza berri egon behar dute. Gainera, ezin dira guztiak inguru batean egin, gune bakoitzak ere bere maximo eta minimoak baititu.

Kopuru horiek ateratzeko hainbat faktore hartzen dira kontuan: demografia, e-estruktura piramidala, famili egiturak eta migrazioa. Orion dauden etxe huts kopuruak, oraingoz, ez du lekurik formulan. Aldatu egin nahi dute orain arteko formulazioa eta etxe hutsak kontuan hartu, baina oraindik ez da errealitatea.

233 etxe huts daude Orion

Kostako hainbat herrik bereizketa egiten dute, eta zehaztu egiten dute etxe hutsen artean zenbat diren bigarren etxebizitzak. Orion badira udako etxebizitza ugari, urte sasoi horretan populazioak gora egiten du. Baina, azkenekoz IBIk erre-kargua egin zuenean, ez ziren bereiztu bigarren etxebizitza horiek. Hortaz, guztiak zaku berean daude.

Bestalde, etxebizitzaren profila nolakoa izango den ere adostu behar da. Orain arte, plan orokorrek zioen etxebizitzak, gehienez, behe solairua, hiru pisu eta teilatuko solairua eduki behar zituela. Kostaldeko herri gehienetan horrela da, baina Orion nola izango den erabaki behar da.

“Orion dauden etxe hutsak ez dira kontuan hartzen, oraingoz, Plan Orokorrean.”

“Ezinezkoa da frontoia Muntoko eremuan kokatzea, Costaseko legeagatik”



Orión 2030 kanal berezia. Karkara.eus webgunean Oriónko Hiri Antolamenduaren Plan Oriokor Berriaren inguruko albisteak biltzeko kanal berezia sortu dugu, Orión 2030 izenburuarekin. Bileretako kronikak eta albisteak daude jasota kanalean.



Ekipamenduak: zein eta zenbat arautu gabe

Legeak espazio libreen erabilera zehazten du, zurrunki gainera, baina ez ekipamenduen. Garapen bakoitza egiten denean ekipamenduentzat gutxieneko eremu bat derrigor-tzen du, baina ez du zehazten zein zerbitzurako izango den.

Udalaren ardura da ekipamendu horiei erabilera bat edo beste ematea, baina, sarritan, Jaurlaritzak du azken hitza. Anbulatorioan edo ikastetxeetan obra egiteko beharra ez du sumatu, orain arte, behintzat. Ekipamendurako partzela Udalak jartzen du, baina eskumena ez da Udalarena.

Jasangarria eta bideragarria izatea ezinbestekoa

Egin, baina zer dirurekin? Nola finantzatu da? Galdera hori egiten du Udalak proposamen bakoitzaren ondoren. Errentagarria behar du izan egiten denak. Errentagarria eta jasangarria. Ertz askoko kontzeptuak biak ala biak.

Hazkundera ez dadila gehiegizkoa izan, ez ditzala dauden baliabideak agortu eta ingurune naturalak kaltetu. Oriok legeak araututako espazio libreen kantitatea bikoiztu egiten du: arauak biztanleko 5 metro karratu egon behar dutela dio eta Orion 15ean gaude. Oro har kalitatezko espazio libre asko du Oriok, nahiz eta leku jakin batzuk gabeziak dituzten.

3.128 kotxe erroldatu eta 4.362 aparkaleku

Aparkaleku gabezia ere badago zonalde batzuetan, Eusko Gudarín, esaterako; baina, Orion, ez dago aparkaleku faltarik. Orion 5.800 biztanle daude, gutxi gorabehera, eta

2015eko datuen arabera, 3.128 kotxe daude erroldatuta. Horientzako aparkalekuak, guztira, 4.362 dira. 2014ko abenduan eguneratutako zerrendaren arabera, 2.358 garaje plaza daude, gehienak lur azpian. 2015eko zenbaketaren arabera, 1.872 aparkaleku daude lurazalean eta 132 plaza Munto, Arozena eta Anibarko portuan.

Bileretan hondartzako aparkalekuak hizketa gai izan dira hainbatetan. Askorentzat urrutiegi daude hirigunetik, baina, beste batzuen ustetan, ez. Pertzepzio kontua da.

Frontoia dagoen lekuan ala beste nonbait?

Antzekoa gertatzen da frontoiarekin. Inguru degradatu eta ilun batean kokatzen da egun, arnas falta dagoen tokian. Adituek hiri lurtean gaizki txertatuta dagoela diote. Baina, nora mugitu behar da?

Dagoen tokitik atera eta hondartzara mugitzea da plan orokorraren planteamenduetako bat, baina herritar asko eta asko asmo horren aurka daude. Herrigunean egotea nahi dute askok, kiroldegi ondoan, esaterako. Ezinezkoa da hori, ordea. *Costasek* atzera bota du jada proiektu hori, legea urratzen baitu. Dena den, ez da baztertzen frontoia dagoen tokian uzteko aukera.

Urte luzeko eztabaida da frontoiarena, aspaldi hasi eta oraindik amaitu ez dena. Instalazio egokiak bermatu nahi dira pilotarientzat, eta, aldi berean, erabilpenerako eskura izatea garrantzitsua ikusten da. Baina, zaletasuna sustatzeko nola bilatu oreka?



PILAR AZURMENDI: “Udal ordezkariak hartzten dituzte erabakiak”

Euria egiten duenean, frontoia jolastoki

Urte gutzian euria egiteko probabilitateak handiak dira Orion. Euria gogoz egiten du eta aisialdia kanpoaldean, lasai, igarotzeko aukerarik ez dago. Estalpera joan behar.

Haurrek frontoian aurkitzen dute babesia. Baina, pilotan jokatzeko tokia denez, maiz, okupatuta egoten da. Irtenbide bat eman behar zaio arazoari, eta hainbat proposamen jarri dira mahai gainean: herriko parke bat estaltzea edo estalpe bat egitea haurrak jolastu ahal izateko. Aukera guztiak aztertu behar dira, egokiena zein den ikusteko.

Interes handia, parte hartzea ez horrenbeste

Lehen fasean, orotara, bost bilera-ireki egin dira. Kopuruz handitik txikira joan dira, 60 lagunek hasi eta 30 lagunekin amaitu; edukiz, alderantziz, gero eta ekarpen gehiago egiten joan dira.

Interesa erakutsi du jendeak, baina jendaurrean iritzia emateko eta proposamenak egiteko pausoa gutxi batzuk eman dute. Eta, hori da, hain juxtu, Udalak eskertuko duena: proposamenak.

Bileratan esanda ez ezik, idatziz ere jasoko dira proposamenak. Bi bide daude horretarako: bata, udal bulegoetan aurkeztea, eta bestea, orio2030@orio.eus helbidera idaztea. Finean, plan orokorra herriaren garapena zehazteko instrumentua da, eta horretarako herriarren beharrak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa da.

Zenbateko esku-hartzea duzu plan orokorrean?

Guk txostenak egiten ditugu, baina erabakiak udal ordezkariak hartzen dituzte. Teknikoagoak direnetan, araudiari dagozkionak esaterako, kasu egiten digute; baina, beste batzuetan, ez. Iritzia beti ematen dut.

Zuen laguntza beharrezkoa zaie udal ordezkariak.

Teknizismo asko daude eta berak ez dute zertan hori gutzia jakin behar; ez daukate guk daukagun instrumentuak eta ez dituzten zertan eduki behar. Hori gure lana da. **Zuk, pertsonalki, zer behar ikusten dituzu Orion?**

Parke estaliarena eta frontoiaren egokitzapenez gain, areto txiki funtzioanitz eta zaharretxea. Anbulatorio berri bat beharko dela ere iruditzen zait.

Eta, hiru ekipamendu horiek nola finantzatu daitezke?

Hornidura publiko guztiak defizitarioak dira, hortaz, masa kritikoa edukitzeaz gain, horiek mantentzeko dirua eduki behar da. Oriok, zorionez, 7.000 biztanleko herri baten ekipamenduak ditu gutxienez.

Anbulatorioaren eta zaharretxearen kasuan, Udalak partzela besterik ez luke jarri behar. Ikusi beharko litzateke ea proposatzen diren garapenetan ekipamendu horientzat espazioak sortzen diren ala ez.

Areto funtzionaniztunaren kasuan, partzela, eraikina eta mantenua Udalaren esku geldituko litzateke. Aurrekontuan gastu eta sarreraren arteko oreka juxtua da, hortaz, hori egitea posible den ala ez aztertu beharko litzateke.

OSPAKIZUNA



Podiumetik podiumera

Orioko eta Aiako Mendi Lasterketak izan dira martxoan. Oriokoa martxoaren 1ean izan zen eta helmuga zeharkatzen lehen emakume oriotarra Sara Peña izan zen -gizonezkoetan Ibon Berasaluze-. Bi astera, martxoaren 15ean, Aiako Mendi Lasterketa izan zen eta bigarren helmugaratu zen Peña, Virginia Perezen atzetik. Horrez gain, 8 Miliak lasterketa ere irabazi zuen otsaila amaieran. Zorionak!

HANDIK ETA HEMENDIK



“Berdelaren kanpaina zail dator aurtten. Ez dakit erren-tagarritasun aldetik nolako kanpaina izango den. Beldur pixka bat badugu.”

Leandro Azkue, Eusko Jauriaritzako Arrantza Zuzendaria, Berrian.

“Asko irakurtzeak ez du idazle onik ziurtatzen! Bai, bale, baina... Zergatik eduki beharko genuke motiboren bat irakurtzen ez duen idazle baten testuak irakurtzeko?”

Anjel Lertxundi, idazlea, Berrian, martxoaren 5ean.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 - komertzial instalazioak - beira bikoitza
 - segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

BODEGAS Gailur
 19000 BARRIOS de CERRO
 TLU/Pl. 200 00 01 88
 www.bodegasgailur.com
 Anabarr Errisaca

ZUDUGARAI

 Galiziaro Tradizioa
 Tel. 945 83 03 86
 Fax 945 83 54 22
 bukoiztagoia@coakal.net.es
 www.bukoiztagoia.com

KOLON TXIKI
 atzerizko
 jantziak

 Herriko Eparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ITZALA
 kartekin jokatzen
 aproposki
 tel. 943 33 12 59

ARRAUNETXEKO
KIROL MEDIKUNTZA ZENTROA
 > Azterketa medikuak
 > Entrenatzaile zerbitzua
 > Kirol Nutrizio zerbitzua
 > ENTRENAMENDUAK HIPOXIAN
 BPXport
 kirol zerbitzuak
 www.bpxport.com
 %15eko deskontua
 Karelako
 bazkideentzat
 Info+ 943 89 44 28

Martxoko sarituak
Faustina Agirre
 Bi Gurpil
Asier Arrieta
 Sagasti Leihoak

30€
Arkupeko dendetan gastatzeko



Tipi-tapa, tipi-tapa euskararen alde Korrika

Mapiletik Anibarko Porturako bidean talde txikiak ziren Korrikara gehitzen zirenak, baina herrira iritsi zenean jende mordo bat zen. Lasterketa jendetsua izan zen martxoaren 22koa, euskahaldun ugari aritu zen korrika.





Txikienek ere Korrikaz gozatu zuten

Martxoaren 18an, Ikastolak eta Zaraguetak antolatuta, Korrika Txikia egin zuten herriko txikienek: Bikamio-tatik hasita plazaraino, mailaz maila handienek txikienei testigua pasaz egin zuten lasterka. Txalaparta jo eta bertsoak abestu zituzten ibilbidearen amaieran.

eduzitegia
ANTILLA
juleta

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitar-tekoak

943 83 06 09

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
 ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 18 43

100% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

SU KIA
 TABERNA - JATETXEA

On egite eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 832 129
 ARAROMENDI 30, 1. BARRIOA

ASADOR XIXARIO

Parko Gaberri Kalea, 2
 Tel. 943 330 019 - 0810

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesiascorreojeros@gabon.es
2010 ORIO

- ATAK IRREKIZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETA
- ATAK IXTENKO MALOKURRI ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

24 ORDUKO ZERBITZUA

sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
 TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAIINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS SAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUE TAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
 Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
 Tel. 943 575 361

oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA

arkaitz taberna
 orio

- Ogitar-tekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657



Garabi bat agertu zen barraren aurrian

Bi mila eta hamabost urtean, martxoaren 17. egunian, Orioko herriko barraren aurrian, garabia agertu zan beatzik aldian. Horixe gertatu zitzaizen barra eraberritzeko lanak egiten ari zirenean, garabi bat uretan hondoratu zitzaizela, alegia.

Obra egiteko erabiltzen duten garabietako bat ez zuten jaso lanaldia amaitzean. Eta, gauean, marea igo zenez, garabia urak eraman zuen. Eta, hurrengo egunean, esnatzean, garabia hondoratuta zegoela ikusi zuten.

Garabia uretatik atera ahal izateko beste garabi bat erabili zuten, kontrapisua egingo ziona.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.

KARKARA ETA IÑAKI GAZTAÑAZPI



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale Kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino
eramaten ditugu**

943 83 09 84

**aita lertxundi, 36
ORIO**

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrea Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

943 831048
610 697 668

www.fotoramiro.com

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943.572083
FAX - 943.571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

ODITZ

*Phonics nahateko niretakoak
guztiz eta onakuz*

tel. 943 83 00 89

**OREKA
FISIOTERAPIA**

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
bentsoak, akupuntura,
enkaio terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Artzeaga kalea, 11. beheko

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Izarra Bideoa

363 € PHILIPS 40" AURREZTU

%60

5 € 8 GB
9 € 16 GB

299 € DELL TONERRA
500GB/4RAM hemen bete ezker

SANDISK

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

gizarte
kutxa

ROSANA ARRUTI
FOTOGRAFIA ESTUDIOA

**2015
Jaunartzeak**

Telf: 943 83 58 45
fotorosanaarruti@gmail.com



Hitzez hitz, ozeanoa zeharkatu eta Boliviara iritsi arte

Arantxa Eizmendi eta Ziortza Balerdi

Hitzez elkarteko kideak

Isilpean hasi ziren lanean urte luzeak itzalpean eman zituzten emakume baserritarrak, inori esaten ez ziotena elkarri kontatzen. Esperientzia hori partekatzerara joan dira Boliviara.



OLATZARTOLA

Baserritarren topalekua azoka izaten zen astegunetan, eta elizako ataria, jaietan. Baserriko lana hogeita lau ordukoa eta egunero egin beharrekoa da; eta, baserritar asko, baserrirako bizi dira. Sozializatzeko denbora gutxi, lagunartean aritzeko ohiturarik ez. Horrekin apurtzeko eta tabuak hausteko bildu ziren eskualdeko emakume baserritarrak. Hitzez elkarte sortu zuten eta urte luzeetan isilpean gordetakoak ozen esan ahal izan zuten. Arantxa Eizmendi eta Ziortza Balerdi ama-alabak ozeanoaren bestaldean –Bolivian– izan dira Hitzez elkartearen esperientzia partekatzen.

Nolatan sortu zitzaizuen Boliviara joateko aukera?

Ziortza Balerdi: Iaz Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat elkarte Arkauten bildu ziren, beren esperientzia trukatu eta elkar ezagutzeko. Getxoko GKE batek Bolivian lau urteko proiektua zuela azaldu zuen, emakume ekintzaileei buruzkoa. Bilgune horretan ezagutu gintuzten, eta hortik egin ziguten berekin Boliviara joateko gonbita.

Boliviako, Kolonbiako eta Peruko errealitateak ezagutzeko aukera izan genuen, herrialde horietako guztietako emakumeak ezagutu baikenituen.

Guk laguntza taldeen proiektua aurkeztu genuen. Horrez gain, Zumaiaiko neska bat etorri zen gurekin. Berak landetxeen proiektua azaldu zuen, eta oso harrera ona izan zuen. Gainera, han badago aukera horrelako proiekturen bat aurrera ateratzeko, guk ere landa-turismo moduko batean hartu baikenuen ostatua.

“Laguntza taldeen proiektua azaldu genien, besteak beste.”

ZIORTZA BALERDI

“Ahaztuta neuzkanak gogorarazi zizkidan Boliviako bidaiak.”

ARANTXA EIZMENDI



SINADURA



ARANTXA EIZMENDI ETA ZIORTZA BALERDI

Zailtasun gehiago izango dituzte, ordea.

Arantxa Eizmendi: Baldintza txarretan bizi dira, oso. Balia-bide gutxi dituzte, baina dituztenak erabiltzen ere ez dakite. Zerbait praktikoa egiten erakutsi behar zaie, eguneroko ogia atera ahal izateko.

Balardi: Oso zaila da han emakumeak zerbait egitea, saltzera joateko, hirira, hiru ordu ibili behar baitituzte.

Eizmendi: Gogoa badute emakumeak bildu eta egoera aldatzeko. Baina han borroka egitea zaila da, oso zapalduta baitaude. Testigantza oso gogorak entzun genituen.

Balardi: Gizon batek alkohola edaten zuen eta emaztea jotzen zuen. Uzta garaia pasa zenean, dirurik ez zegoenez eta alkoholik edan ezin zuenez, semea saldu zuen.

Hemen beste era batera bizi al gara?

Eizmendi: Goizean seme-alaba etxetik atera eta ez dakite bueltatuko den ala ez. Eguneroko bizirautea bizi dute han.

Balardi: Hemen daukaguna asko baloratzen duzu hangoa ezagutzeari. Gero, egunerokotasunean sartu eta ez duzu horren presente izaten, baino...

Zer pentsatua eman dizue, behintzat.

Eizmendi: Larre motxean bizitakoak gara gu. Ni neska kokkor garaietara joan nintzen bidaiari horretan, haurra nintzen garaietara, eta ahaztuta neuzkan gauzak gogorarazi zizkidan. Denboran atzera joatea izan zen Boliviara joatea.

Dena den, orain, hemen, ezberdina da. Kontsumismoan sartu-sartuta gaude. Gero eta gehiago nahi dugu, nahiz eta soberan daukagun. Gu ez ginen horrela hezi, eta uste dut

gehiagizkoa dela egungoa.

Balardi: 4.000 metroko altueran ibili ginen. Argi-indarreko posteak jarrita zeuden eta esperantza zuten argia izateko. Argia izanez gero, telebista jarriko zutela esaten zuten. Ez dakite idazten ezta irakurtzen –zinegotzi bat ezagutu nuen duela sei hilabete ikasi zuena sinatzen–, baina guztiak dute mugikorra. Gure eredu jarraitzen dute.

Zer diote gutaz?

Balardi: Hemen oso ondo bizi garela uste dute, eta horrela da. Askotan iruditzen zaigu hemen gaizki bizi garela, baina horrelako tokietara joaterakoan ohartzen zara zoragarri bizi garela.

Eizmendi: Leku zoragarrian eta aukera askoko tokian bizi gara.

Balardi: *Ustedes se llevaron la plata de aqui*, esaten ziguten, hango mahastietako eta bodegetako jabeak espainiarrak baitira. Industria hori espainolen eskuetan dago.

Eizmendi: Guk esaten genien euskaldunak ginela. Ez zeukaten Euskal Herriaren berri eta hori ere azaldu behar izan genien.

Nola egin dezakete Bolivian aurrera?

Eizmendi: Haurrak eskolaratzen ari dira, eta hori ona da, jakintzak indarra ematen baitu. Baina, nik uste dut, praktika ere erakutsi behar zaiela.

Balardi: Proiektu berriak ere badituzte martxan, eta guk azaldutako guztia ere apuntatzen zuten. Gogotsu zeudela ikusten zen.

Zuentzako



Zigor Esoain

Azken finean, kuadrillakoen berotasuna gertu izatea arrisku orotako aseguru poliza izatea bezala da; prezio oso baxuan gainera. Ia ezer bueltan eman gabe.

Niotenez, lagunak lau edo bost izaten dira, eta gainontzekoak ezagunak. Nahiz eta arlo askotan errege erroskako baba niri tokatu, esan dezaket, lagunekin, kaka zapaldu izango banu bezala gertatu zaidala. Zortekoa naizela, alegia.

Badakit, askotan, kuadrilla beste jendearekin harremana izateko muga izan ohi dela –ertzainek *manifak* debekatzera-ko garaian jartzen duten harresiaren pare–.

Kuadrillakoen inguruan babestuta, lagun-talde horretatik kanpo dagoenari itxita egoten gara sarri, besteekiko aurreiritzi okerrez josita. Halere, esan behar dut, kuadrilla kontzeptuak dituen txar guztien gainetik, nire lagun-taldea, etxeokoen duten lehentasuna zalantzan jarri gabe, nire familia dela.

Beretako batek umea edukitzen duenean, jaioberriaren osaba sentitzen naizelako –Zorionak Karen eta Unai; ongi etorri Alai!–.

Zerbait gaizki egiten dudanean, gaiztoa ez naizela zalantzan jartzen ez dutelako. Beretako bat langabezian geratze-

an, ni EREra joatea bezala delako. Beren garaipenak eta porrotak nire egiten ditudalako. Norbait beretako baten bategatik gaizki-esaka aritzean odola irakiten jartzen zaidalako. Laguntza behar dudanean, eskatu gabe, emateko prest daudelako.

Nahiz eta azkenaldian elkarrekin gutxiago egon, egoteko gogoia ez zaidalako txikitu. Eta egoten garenetan, denbora lotan bezain azkar pasatzen zaidalako. Hau guztiagatik eta beste hamaika arrazoi sendogatik, nire kuadrilla nire familia da.

Izaten dira gorabeherak, gaizki-ulertuak eta eztabaidak gure artean, baina, hamabost urtetan ez dit beretako inork labankadarik sartu, ez dit inork traiziorik egin. Azken finean, euren berotasuna gertu izatea arrisku orotako aseguru poliza izatea bezala da; prezio oso baxuan gainera. Ia ezer bueltan eman gabe, nahiz eta nire nahia ahal dudana guztia ematea izan. Eta, horregatik, irakurleen baimenarekin, zuei eskainita doa idatzi hau. Jarrai ezazue zaretan bezalakoak izaten. Zuek edukita, ez dudalako beste inor behar. Zuentzako!



Santi Barranco
Telf.: 618581398
Arizaga, 2 - 2º eskerria
20810 Orío (Gipuzkoa)

**Seguros
Bilbao**
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Jabier Zabaleta

Pasa da Korrika Oriotik...

Atzerriko lagunei kontatzen diegunean zer den Korrika eta irudiak erakusten dizkiegunean, jo eta lor geratzen dira, miretsita.

Pasa da Korrika Oriotik eta emozio positiboen tsunami batek astindu gaitu berriro. Badu zerbait Korrikak gure barruak mugitzen dituen, indar teluriko bat ia, sinbologia sendo bat: eskuz esku doan lekukoa, herri bat martxan irudikatzen duen lasterketa kolektiboa, erronkei indarrak batus erantzuten dien giza-talde alai baten indarra...

Atzerriko lagunei kontatzen diegunean zer den Korrika eta irudiak erakusten dizkiegunean, jo eta lor geratzen dira, miretsita. Harrigarri egiten zaie Europaren izkina honetan, herri txikitxo honetan, gure hizkuntzaren alde horrelako ekimen erraldoia bi urtetik behin antolatzeko dugun gaitasuna eta indarra. Ez da, egia esan, erraz azaltzekoa.

Aurtengo Korrikak ere koloretako suge baten gisa zeharkatu ditu gure errepide eta kaleak, sigi-saga, eta inoiz baino jende gehiago bildu du Orion eta inguruetan. Zirrara sortzen dute bideo eta argazkietan jasota geratu diren irudiek. Herri-herri antolaketan laguntzen ibili garenontzat izugarri pozgarria izan da herritarren erantzuna. Ekimen gutxi dago Euskal Herrian Korrikak adinako batasuna eta adostasuna biltzen duena. Kolore guztietako herritarrek parte hartzen dute, herriz herri, eta horrexek ematen dio bizitasuna eta proiektzioa. Gurean, Udalean ordezkaturik dauden hiru talde politikoek ere parte hartu dute, gogoz, beste talde eta elkar-teekin batera, eta benetan estimatzekoa da guztien jarrera eta ahalegina.

Korrikaren inguruan erakutsi dugun batasun eta adostasun hori bera lortuko bagenu gaur egun planteatzen zaizkigun bestelako erronkatan ere (Euskal Herri mailakoetan zein gertuko enetan), nork geldituko luke gure martxa? Nork egin liezaioke aurre pozik eta kantari, bat eginda, datorren herriari?

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artokaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 96 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea, 20810 Orio

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Katu Moria
arbatzaritza kulinaria

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO

tel. 943 11 66 99

Larriak: 868 89 11 29

www.katumoria.com

Joana Murgiondo
Asegurari-agenzia

ASEGURUAUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

kutixi
kafetegia
GOSARI GONDOAK

Artzaga 9, 20810 Orio
Tel: 943 13 15 17

LORETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

KINTO
AFARIETAKO
MENU
BEREZIAK

JATETXEA
Galerna

Antillako Hondartza 5- 20810- Orio
Telf.: 943 89 04 16

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTELEREN TIK - LARROBATENA 7:00 - 20:30
16NDI ETX JEI-EGURITAN 7:00 - 13:30

Tlfnoa: 943 89 06 67

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Eteko produktua: tripa, odol, txakorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

MENDIZABAL
AROZTEGIA
Naurriko arnairak
eta egurlanak

943 831 175 Altsen bidea
645 708 491 Bell-Nai etxea
mend@aroztegi.net 20810 Aia-Orio

XABIER URREBIZKALIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74

Arantzale, 31 20810 ORIO

URAITZ
Lurrindegia
jandit-sagarriak

Endria, 3 Tfnoa: 943 83 18 97

karkara.eus

Eskaintza berria
Eskaria



Ederki aldatu da herria 1960ko hamarkadatik hona.

Iraultzak

Oroimenaren kutxa



Orriok 1968an jokatu zuen nazioarteko lehen estropada, Oxfordeko ingelesekin zortzikoan. Estropada hura izan zen herri txiki honek Euskal Herriko orduko arraun munduari ekarri zion iraultzaren momentu gorena.

Garai hartan iraultzaren haizeak astintzen zuen mundu zabalean, baita Euskal Herrian ere. Iraultza hark askotariko formak hartu zituen, eta hainbat gune eta une geratu ziren historiarako. Parisen, maiatzean, ikasleen eta langileen errebolta gertatu zen, historialariek Pariseko 68ko maiatzeko iraultza izendatzen dutena; *debekatuta debekatzea* edo *egin maitasuna eta ez gerra* bezalako lelo aski ezagunak utzi zizkiguna. Estatu Batuetan Vietnameko gerraren kontra manifestatu ziren gazteak. Pragan, tanke errusiarren aurka. Kultur espresio asko ere erabat aldatu ziren, formetan eta edukietan. *The Beatles* gazte tximadunen musikari taldea izan zen orduko kultur molde berrien ikurretako bat, Joan Baez edo Bob Dylanekin batera.

Euskal Herrian, berriz, Euskaltzaindiak Arantzazuko biltzarrean euskara batuaren oinarriak jarri zituen. Horrek sekulako eragina izango zuen ondoko urteetan alor askotan: hedabideak, unibertsitatea, eskola, literatura... ETAk lehenengo hildakoa izan zuen 68an: Etxebarrieta, eta lehen hilketak egin zituen: Pardinak eta Manzanak.

Aldaketa-haizea zebilen mundu guztian; baina Euskal Herrian artean frankismo bete-betean segitzen genuen, Fran-

coren diktadura anker eta zapaltzailearen azpian. Estatua-
ren indar errepresiboez gain, Elizak ere errepresio ideologi-
ko kultural handia eragiten zuen gizartean, jendearen ohitu-
retan; muga estuak ezartzen zizkien orduko gizon-emaku-
meei. Dena zen debeku eta bekatu. Kartzela eta infernua
presente zeuden, mugitzen hasten zen edozeinen panora-
man; nahiz eta Elizaren barrutik orduko apaiz gazte asko, or-
duko aldaketa giroak kutsatuta-edo, askatasunaren bidean
abiatu ziren.

Garai hartan, Estatuak eta Elizak neurri handian derrigor-
tzen zuten herritarren bizitzeko modua: zer eta nola egin, eta
batez ere zer ez egin; gizabanakoaren askatasun eremua es-
tua zen oso, baita formetan ere. Orion, behin, hondartzan
etzanda zegoen neska gazte atzerritar bati, hori egiten ausar-
tuta, bi guardia zibil joan zitzaizkion, herriko emakume ba-
teksalatuta.

Herriaren eta herritarren askatasun-bidean orduan ematen
hasi ziren pausoetan, Orion izan ziren bi pertsona herri-
tar askoren oroimenean ubera utzi zutenak. Josemaritxo
esaten zioten bi haietako bati, bere izenari –txo hori erantsi-
ta. Rexu zen bestea. Denok berdintasunera zigortuta geun-
den gizarte itxi hartan, bi pertsona haiek ausartu ziren des-
berdin jokatzeko, ziren bezala agertzen, beren desberdintasuna
erakusten, lotsarik eta konplexurik gabe. Desberdin
izateko eskubidea aldarrikatu zuten.

Rexuk eta Josemarik, era horretan, askatasun tanta ede-
rrak erein zituzten orduko Orioko basamortu idorrean. Gi-
zartearen ohitura eta joera nagusiak aldatzea urte askotako
prozesua izan ohi da. Aldaketa bide horretan jende xume
anonimo batzuek egindako ekarpena inportantea izaten da.
Batzuek gogoan ditugu orduko gizarte klase hura eta bi per-
sona haien ekarpena.

Ba al zuen Oriok Eroskiren beharra?



Orioko Eroski Berriaren kanpoaldea . KARKARA

Ingurune guztiek derrigorrezko ekipamendua dute, gutxieneko kopurua zehazten du legeak. Eta, bai ala bai, legeakeskatzen duen minimoa bete behar da.

Etxe kopuruaren arabera da hori, espazio horretan eraikitzen denaren arabera. Eta, ekipamendu horien barruan sartzen da izaera komertzialekoa, Eroski berria kasu.

Aurreko legealdian hasi zen guztia Indarrean dagoen Plan Orokorrean aurreikusita zegoan izaera komertzialeko lokala Munto eremuan.

Legeak izaera horretako lokala eskatzeaz gain, agintean zegoen alderdiak Eroski bezalako saltoki bat jartzeko borondatea zuen. Eskumena, ordea, lokalaren jabeak zuen, dotazio pribatua baita.

Bildu

Denborak esango du

Lehendik bazen erosketak egiteko nahiko aukera. Herriko komertzioak izaera ematen dio herriari, horregatik, Udalak diru-laguntzak indartu dizkie merkataritxikiei eta ostalariei. Muntoko proiektua eteteko modurik ez genuen udaletxean sartutakoan, aurreko gobernuak ondo lotuta utzi zuen operazio ekonomikoa. Goiz da ondorioak ateratzeko, bezeroak jarriko du bakoitza bere lekuan.

Orain

Ortzadarrarekin zuria osatzen da

Heterogeneoa dugu gure taldea eta antzak izaten dira iritziak, ortzadarraren koloreen halakoak. Herri baten denda berri bat irekitzen denean, orokorrean, mesederako ala kalterako izaten da? Zein ikuspegitik ikusten duzun, galderan non kokatzen zaren arabera doa erantzuna. Garbi dago erosotasunean eta ordutegiaren malgutasunean irabazi dugula eta dendari batzuk kaltetan atera direla.

Supermerkatua lur azpian

Kirol ekipamenduak, Ikastolak behar duen espazioa, gutxieneko espazio librea, *Costasen* legea... hainbat gauza hartu behar ziren kontuan lokal komertziala kokatzerako orduan. Eta, azkenean, puzzle handi bat egin eta lur azpian joatea erabaki zuten.

Sarrera kanpoaldean dauka, futbol zelaiaren aldamenean, baina eskaintza guztian -1 solairuan jarri zuten.

Beste saltokien aldean, handia

Mila metro karratu daude eraikita, baina gutxiago dira erabili daitezkeenak.

Neurri horiekin ez da saltoki handien kategorian sartzen Orioko Eroski berria, nahiz eta herriko gainerako saltokiekin alderatuz gero handia den.

2012an baimendu, 2014an ireki

Udalaren esku zegoen gauza bakarra baimena ematea zen, eta 2012 urtearen amaieran, 2013 urtearen hasieran eman zuten.

Lokala, ordea, bi urte beranduago ireki zen. Aste Santuetarako ireki nahi zuten, baina lanak atzeratu eta iazko maiatzaren 6an egin zen azken ikuskaritza. Ondoren ireki zen. Urtebete darama, gutxi gorabehera, irekita Eroski berriak.

EAJ

Merkataritza elkarbizitzen

Eroski berriaren irekierak herriak dituen aukera komertzialak aberastu ditu. Dautan kokapenagatik eta ordutegiagatik herriko erosle batzuen beharrei erantzuten ari da. Orioko biztanleria aurrera egiten ari den eran, garbi dago elkarbizitzako modua izango dela Orioko komertzio guztien artean, eta denda bakoitzak bilatuko duela bere bezero mota eta eman beharreko zerbitzu pertsonalizatua.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Lintzan eta Aretten izan ginen eskiatzen



Martxoaren 16an, Lardizabal Herri Eskolako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak eskiatzera joan ginen. Txangoa lau urtetik behin egiten dugu Lintzako aterpera eta Aretteko estaziora. Lintzan bi egun egin ditugu iraupeneko eskia egiten. Hirugarren egunean, Aretteko estaziora joan ginen, eta han malda ederrak jaisteko aukera izan genuen. Eskolako irakasleez gain, eskiatzen irakatsiko ziguten irakasleak etorri ziren. Primeran pasa genuen!



Lardizabago 6. maila

Eskola kirola eta arbitroak

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Garun paralisia duen Cesarren bisita izan genuen Ikastolan



Nerbio sistemaren funtzionamendua aztertzen aritu gara azkenaldian. Horregatik gonbidatu genuen gelara Cesar Campos hondarribiarra. Cesarrek garun paralisia du jaiotzez, eta Bliss sistema erabiltzen du komunikatzeko. Sistema 600 sinboloz osatuta dago.

Gelan sartu eta berehala, Pazientzia hitza idatzi zigun arbelean. Agurtzera-koan, berriz, hau esan zigun: *Goza ezazue bizitzaz, eta kontuan izan on eginez gero, askozaz ere hobeto biziko zaretela.*

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Irteera alkizara bosgarren mailako neska-mutilekin



Bosgarren mailakoak Alkizara irteera egin zuten. Martxoaren 9an joan ziren, lau egunetarako. Iritsi orduko ekintzak egiten hasi ziren: Bihurkinaren jolasa, armiarmarena, zaldietan ibili... beldurrezko pelikula bat ere egin zuten. Haurrak esaten dutenez bertako jantaria oso goxoa zegoen. Baina dena ez zen hain dibertigarria izan, bakoitzak bere ohea egin behar baitzuen maindire *antipuzkarrekin*. Po- pozik itzuli ziren gure neska-mutilak!

Zutabe hau aprobetxatu nahi dugu Eskola Kirolaren inguruan gertatzen den kontu baten inguruan gure iritzia emateko.

Gu astero ibiltzen gara Eskola Kirola programaren barruan hainbat kirol egiten. Aitortu beharra daukagu, batzuetan, batzere ere partida galdu egiten dugunean, errua epaileari leporatzen diogula.

Epailea aurkariaren alde egoten dela iruditzen zaigu eta hartzen dituen erabakiak beste taldearen alde hartzen dituela pentsatzen dugu.

Guraso batzuek ere, antza, geuk bezalaxe pentsatzen dutela dirudi; haiek ere kexatu egiten baitira.

Zenbaitetan, telebistan ikusten dugun moduan, errieta ere egiten diegu. Ziurrenik, batzuetan hanka sartuko dute, eta ez dute asmatuko.

Hala ere, hotzean pentsatzen jarrita, euren denbora librean, musutruk, lanean aritzen diren guraso eta epaileei eskertu behar diegu astero-astero kirola egiteko aukera. Horien guztien lanari esker daukagu astero kirola eginez ongi pasatzeko aukera.

Zutabe hau aprobetxatu nahi dugu, beraz, guk adiskidetasun giroan kirola egin dezagun ahalegintzen diren guraso, epaile eta entrenatzaileei eskerrak emateko.

PERTSIANAK
A K O M A N Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORJO** Tel: 943 83 00 05/
Tel: 943 13 25 32



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



tel/fax: 943 89 00 69
Bikotia kalea, 4. 20.800 ZARAUZT



ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Prespresak konpromisoak gabe

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

EGIGUREN ARGAZKI ESTUDIOA
Argazkilaritza Profesionala

- Argazki Sesioak (75€)
- Haurdunaldiak
- Jaio Berriak - Hileroko Segimentua
- Lehenengo Jaunartzeak (220€-tatik)
- Ezkontza-aurrekoak/Ezkontzak/Ezkontza-Ondoren (Prezioak bikotearen nahietara egokituta)
- Diseinuko Albumak
- Photocall Argazki Sesioak (10Argazki-15€-tan)
- Argazki Anpliazioak edozein tamainuan (foamean edo eskuz egindako markoetan)

EGIGUREN
Argazki Estudioa - Foto Studio

LOKAL BERRIAN

Eusko Gudari Kalea 5 behean
20810 - ORIO
943-030.425 - 607.542.763

XS

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arkitektura



borja agirresarobe lopetegi
hemiko-barra 6, behean
20800 zarauzt

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com



KAIUA

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAIUARA
BOKATA EDERRAK JATERA

Anbarko portua 35, behean
Tel: 943 040 080

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



Gertutasunaren goxotasunean

Kritika Anje Duhalde

Kontzertua, Korrika kulturalaren barruan kontzertua eskaini zuen Anje Duhaldeak asteazkenean

Rock izar handi asko izan dira beren musikaz tarteka modu akustikoan gozatzeko aukera eskaini dutenak. Eta ez dago zalantzarik Anje Duhaldeuskal pop-rockaren erreferenteetako bat dela esatean.

Denboraz larri iritsi ginen Kultur Etxera. Eserlekua izango genuenaren ziuertasunak horretarako baimena emanda. Baina, eserlekua non egokituko, eta, lehenengo errenkadan. Bozgorailuaren parean. Azkenekoz Anje Orion izan zeneko zapore gazi-gozo hura kentzeko ez zen aretoko lekurik onena.

Oraingoan bestelakoa izan zen ordea. Goxo-goxo sartzen ziren Anjeren eta Remyren gitarra doinuak belarrietatik. Baita haien ahotsak ere. Ume txikien pare, lurrean irakurri genezakeen abesti zerrendari begira aritu ginen, eztarriak berotu eta kamera prest izateko. *Datorren abestia kantuz izango duk! Azkenerrako utzi dik Amnistiaren Dema!* Emozionatuta ginen.

Aretoa lepo, adin guztietako jendea Duhaldek berak nabarmendu zuen bezala. Sentimendu desberdinen meta ederra osatu genuen. Batzuk abestiek sortuak, besteak Anje Duhalde eta Remy Gachisen umoreak piztuak. Izan ere, nahikoa al-gara egiteko aukera eman ziguten musikari lapurtarrek.

Ni, euskal paradoxari ironiaz aritu zitzaion momentuekin geratzen naiz. *Errepi-karen momentuan, barkatu, euskaraz estribilloa edota Lümarik ejerrena beitzia orori... Orain euskaraz! Lalala...* Zirtolari galanta haiz Anje!

IKER GURRUTXAGA



Kirola

Euskal Herriko Itzuliko azken bi etapa Aian izango dira

Txirrindulari zaleek apirilean dute zita, Aian. Euskal Herriko Itzulian azken bi etapak Aian izango dira: apirilaren 10ekoa Eibarren hasi eta Aian amaituko da, eta, apirilaren 11koa Aian hasi eta amaituko den erlojupekoa da.

Martxoaren 17an, kontratua sinatu zuten Aiako kultur etxean. Fernando Ortiz de Guinea -Orioko Kirol Antolakuntzak-, Igor Iturain -Aiako alkatea- eta Enrique Erentxun -Itzuliko zuzendaria- bildu ziren batzar aretoan ekitaldirako.

@karkara.eus/aia/1426601081214

Politika

Bi alderdietako alkategaiak aurkeztu dira
Aian adostu dute nor izango den alderdi bakoitzeko zerrendaburua. Urte luzez alkate izan den Igor Iturainek ez du jarraituko, eta EAJko bere postua Nekane Arrizabalagak hartuko du. Bi urtez zinegotzi izan ondoren, independente moduan aurkeztuko da Arrizabalaga. Bilduk ere adostu du nor izango den bere alkategaia, Eñaut Erasun. Ez da orain artean zinegotzi izan, baina Bilduko udal taldean jardun da lanean azken lau urtetan. Ez dute zerrenda osatuko duten gainontzeko alderdikiderik aurkeztu, baina talde indartsua eta lanerako gogo handia izango duena osatuko dutela baieztatu dute biek.

Kultura

Balantze ekonomiko positiboa Orio AEk
Maiatzaren 13an, iluntzean, bildu ziren Orio Arraunketa Elkarteko 80 bazkide Orioko kultur etxean. Ohiko batzar nagusia egin zen. Lehenik, 2014ko otsailaren 21ean egin zen batzarreko akta irakurri zen. Inongo eragozpenik gabe, aho batez, onartu zen. Ondoren, iazko denboraldik emaitzak errepasatu ziren eta azpimarragarrienak zerrendatu zituzten.

Gizartea

Interesa bai, baina jendea falta da
Orioko Udalak berdintasunaren gaia jorrazteko beharra eta nahia adierazi zuen azkenekoz egin zen ohiko bilkuran. Indarkeria matxistarekin amaitzeko urratsak emateko, berdintasunera bidean, talde eragile bat osatzeko beharra ikusi zuen. Interesa duen edonork Udalarekin harremanetan jartzea besterik ez du egin behar.



HASI TXIOKA

Txiokatu #Nazioarteko Estropada eta #Aia-koltzulia traolekin!



zigor etxaniz @zalgoretxaniz · mar. 3

Ibon berasaluze, minimalistekin, herriko lehena Orioko Mendi Lasterketan.

ibai @ibai · mar. 13

Festetan zerbait egotea nahi? Azaldu eta proposatu! RT @karkaraeus: San Pedroak antolatzeke lehen bilera astelehenean karkara.com /orio/142616117...

Egoltz Elzagirre retweeted

Jabier Zabaleta @ja2er · mar. 18

Kolorez bete da Orioko plaza, Korrika Txikian #Korrika19

ibai retweeted

Mirari Arriola @Mirari22 · mar. 22

Ze polita dan euskara alde hainbeste jende korrika ikustia! Zoro zoragarriyak geal #euskahaldun



Gizartea Kalean ere wifia doan

Euskaltelek urrats bat gehiago eman nahi izan du kalean wifia jartzen. Horretarako, etxeetan dauden bideratzaileetatik wifia hartzen du eta kalean Euskalteleko mugikorra dutenek libreki erabiltzeko aukera ematen du. Orion jada martxan dago zerbitzua eta kalean wifira konektatzeko aukera dago. Honela, hilean datuak aurrezteko aukera dute oriotarrek.

Aian, ordea, Euskaltelek ez du zerbitzu hori ematen. Hortaz, aiarrek ezingo dute beren herriko kaleetan Euskalteleko wifira konektatu. Dena den, Aiatik kanpo, zerbitzua dagoen herrietan, izango dute horretarako aukera.

@karkara.eus/aiaorio/1426609082764



Gizartea Arantzazura eta Aburuza sagardotegira irteera

Arantzazura irteera egingo dute Zaharren Babeslekukoek apirilaren 21ean. Goizean hamaiketako egin santutegian meza entzun ondoren, Aburuza sagardotegira joango dira bazkaltzera. 9:00etan izango da irteera, eta egun-pasaren prezioa 35 eurokoa izango da. Txartelen salmenta apirilaren 7an egingo dute, 16:00tik 18:00ra. Txartela erosteko, bazkide txartela eguneratuta eduki behar da. Autobus bat betetzeko baino jende gehiagok izena ematen badu, eta bigarreneko 30 pertsona baino gutxiago badaude, zozketa egingo dute antolatzaileek.

@karkara.eus/orio/1427278474424

Ruth Aramendi eta Sonia Zianiri galdetegi laburra



@karkara.eus/orio/
1425651095859



Gu gara happy from Aia: aiarrekin eginiko bideoa



@karkara.eus/aia/
1426066440352



Itsasoko jendearen artean, hainbat oriotar



@karkara.eus/orio/
1426679095702



AGENDA

Orio

Korrika

- Martxoaren 28an, Agurainera korrika egitera, 9:30ean abituta.
- Martxoaren 29an, Bilbora Korrika amaierara, 9:30ean abituta.

Musika

- Apirilaren 17an, Joseba Irazokiren kontzertu akustikoa, 22:30ean, kultur etxean.
- Apirilaren 24an, Zuek ere batukada taldea, 22:30ean, kultur etxean.
- Apirilaren 25ean, Orio-Loatzo musika eskolako banden kontzertua.

Nazioarteko estropadak

- Apirilaren 4an, XVI. Nazioarteko Estropadak. Goizetik Babyauto gunean umeentzat tailerrak. 11:30ean taldeen aurkezpen ekitaldia. 12:00etan musika lehiaketa. Miravalles - Candás -, Els Vinaridells - Vilafranca del Penedès - eta Talai Mendi. 16:15ean XVI. Nazioarteko Estropadak. 17:40ean sari banaketa moila aurreko pantalanean. Arratzalde eta iluntzean txarangak kalez kale.

Besteak

- Apirilaren 21ean, Zaharren Babesleku-koen irteera Arantzazura eta Aburuza

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaria

- Garbiketa lanak, zahar nahiz helduen zaintza eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea. Tf: 636 188 388 -Mayerling-.
- Lan bila dabilen emakumea. Sukaldari titulua eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita haurren zaintzan eta garbiketan. Tf: 695 914 242

- Lan bila nabil ume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barnekoa edo kanpoko- Tf: 634 920 471 -Maria Jose-.
- Esperientzia heldu nahiz haurren zaintzan eta garbiketa lanetan. Azkenekoz baserri batean egin dut lan hiru urtez. Tf: 674123293 -Claudia Patricia-.
- Ikasketaz ingeniari me-

kanikoa, 30 urteko esperientzia soldadore lanetan. Gaztelera, Ukrainiera, Errusiera eta Polakoa hitz egiten ditut. Langilea naiz eta lan bila nabil. 674 946 663 edo 602 628 206 -Bohdan-.

- Asteburuetako lan bila pertsona helduen zaintzan. Paperak araututa eta erreferentziekin. Tf: 663117579

Sagardotegira. Txartelen salmenta apirilaren 7an 16:00etatik 18:00etara.

- BINGOA, asteazkenero, 16:00etan, kultur etxean.
- Maiatzaren 3an, goiz eta arratsalde, Artisau Azoka herriko plazan. Molins de Rei Kataluniako erraldoiak.

Aia

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia

- Apirilaren 10ean, Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko azken aurreko proba, Eibar-Aia, irteera 13:15etan eta helmugaratzea 17:13ak aldera.
- Apirilaren 11n, Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko azken proba, Aia-Aia erlojupeko proba.

Bizikleta astea

- Martxoaren 26a, Mundua Bizkiletaz Asian ikus-entzunezko hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean.
- Martxoaren 27a, Bizikleta eguna Aiako eskolan.
- Martxoaren 29a, Aia-Aia martxa zikloturista.

Erakusketak

- Aste Santuak bitarte, Manuel Fernandez margolan erakusketa, Jauregi jatetxean.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:46 eta 16:09	09:49 eta 22:02	
02	04:22 eta 16:42	10:24 eta 22:37	
03	04:54 eta 17:12	10:56 eta 23:09	
04	05:25 eta 17:42	11:27 eta 23:41	
05	05:55 eta 18:11	11:59 eta ____	
06	06:26 eta 18:41	00:13 eta 12:30	
07	06:57 eta 19:12	00:46 eta 13:03	
08	07:30 eta 19:46	01:20 eta 13:37	
09	08:06 eta 20:24	01:57 eta 14:15	
10	08:49 eta 21:11	02:40 eta 15:00	
11	09:44 eta 22:13	03:33 eta 15:57	
12	10:57 eta 23:32	04:39 eta 17:08	
13	12:24 eta ____	05:58 eta 18:27	
14	00:57 eta 13:43	07:16 eta 19:43	
15	02:09 eta 14:46	08:22 eta 20:45	
16	03:09 eta 15:39	09:18 eta 21:39	
17	04:01 eta 16:27	10:08 eta 22:28	
18	04:48 eta 17:12	10:34 eta 23:14	
19	05:33 eta 17:55	11:38 eta 23:59	
20	06:17 eta 18:38	12:21 eta ____	
21	07:01 eta 19:21	00:43 eta 13:04	
22	07:45 eta 20:04	01:28 eta 13:47	
23	08:31 eta 20:51	02:14 eta 14:32	
24	09:21 eta 21:43	03:03 eta 15:21	
25	10:21 eta 22:47	03:59 eta 16:19	
26	11:34 eta ____	05:04 eta 17:28	
27	00:02 eta 12:53	06:18 eta 18:43	
28	01:17 eta 14:00	07:28 eta 19:50	
29	02:18 eta 14:50	08:24 eta 20:43	
30	03:06 eta 15:31	09:09 eta 21:26	

ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA:

- 1ean, Zulaika.
- 2an eta 3an, Azaldegia.
- 4an, Lasa.
- 5ean eta 6an, Azaldegia.
- 7an, Lasa.
- 8an, Zulaika.
- 9an, Iriarte.
- 10ean, Larrañaga.
- 11n eta 12an, Mutiozabal.
- 13tik 17ra, Lasa.
- 18 eta 19an, Etxeberria.
- 20an, Zulaika.
- 21ean, Iriarte.
- 22an, Larrañaga.
- 23an, Lasa.
- 24an, Etxeberria.
- 25 eta 26an, G. Artiñano.
- 27an, Iriarte.
- 28an, Larrañaga.
- 29an, Mutiozabal.
- 30ean, G. Artiñano.

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

zuri esker

“Gizarte
Zerbitzuei esker,
nire lagun Naiarak
kalte egiten zion
harremana
gainditu du eta
libre bizi da orain”

Ainhoa, 17 urte



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

EMAN AURPEGIA

arrazakeriaren kontra

DAVID DOBLAS | GBCKo saskibaloi jokalaria

#emanaurpegia #arrazakeriarenkontra